

## 5-6 urteko umeak meningitis C-ren aurka txertatuko dituzte

Aurten kanpaina berezia egingo du Jaurilaritzako Osasun Sailak. Bihar, Urumea ikastolako umeei jarriko diete txertoa.



Urumeako ikasleak eta gurasoak ikastola sarreran. (Argazkia X. Etxeberria).

HERNANIKO osasun zerbitzuak 5-6 urte bitarteko 1000 ume inguru bakunatuko ditu Meningitis C-ren aurka, urria bukatu aurretik. Kanpaina hau berria da. Orain dela bost bat urtetik honunza, umeei Meningitis C-ren kontrako txertoa eman izan die; baina, kan-

paina zabala egin eta erizainak ikastetxez-ikastetxe arituko dira bakuna jartzen. Dagoeneko Inmaculadako ikasle batzuei jarria diete. Bihar Urumean ibiliko dira; ostegunean Elizatxon eta Txirritan; hilaren 26ean, berriz, Langilen jarriko dute txertoa.

**PROGRAMAN SARTU**  
Umeek, 14 urte bitartean, zapi gauzen kontrako txertoak behintzat hartzen dituzte: *difteria; tetanoa; kurkutx ezula; poliomilitisa, txarranpina eta parotiditisa; errubeola; eta hepatitis B-a*. Hemendik aurrera meningitis C-rena ere bai. □

## Partxisa eta diapositibak bihar Ereñotzuko Kultur astean

Diapositibak 'Inätzuko' koadrila Hiru Erregeren Mahaira eta beste mendi batzuetara joan zirenekoak izango dira.



'Inätzuarak' mendian. (Argazkia, Ereñotzuko Kultur Elkartea)

ASTEARTEAN hasiko da XII Kultur astea. Igandea bitarteko egitarauari ekiteko, bihar arratsaldeko 17:30etan Partxis lehiaketa jokatu da Txirrita Eskolan. 21:00etan, berriz, diapositiba emanaldia: 2000ko irailak 23: *Hiru Erregeen Mahaira eta beste mendi batzuk*. Igor Minerrek botako ditu Txirrita eskolan bertan.

Asteazkenean ere, diapositibak izango dira: *Indiara bidaia*, Oihana Insausti eta Ikerren eskutik. □

## Asisko Urmeneta komikilariak 'Mantxut?' esakera bilduma aurkeztuko du bihar Biterin

Euskaraz bizi hitzegiteko esakera berriak sortu eta zabaltzea da helburua. Arratsaldeko 19:30etan da.



A. Urmeneta eta 'Mantxut?' liburuaren azala. (Argazkia, Argia).

ARGIA astekariak atera berri du *Mantxut?* (=zer?-nola esan dek/n?), Asisko Urmeneta komikilaria eta Jon Alonso idazlearen euskarazko esakera eta marrazki liburua. Ia galduta dauden esakera zaharrrak eta berek asmatutako berriak dakazki. *Ahoko zuloan eduki, hara bestea!, begiz*

*jo, alukeria...dira zaharretako batzuk; gaur egunerako sortuak, berriz: eurogero ibili (sosik gabe), langabetu kaja (kondo kaja), Retegiren ipurmasaila baino ezagunagoa izan, tipula malkoa, txakurra garitan bezala (bakarrik). Entzuten eta esaten gozatu nahi duena, Biterira bihar. □*

## Olinpiadei buruzko bilera da gaur Gaztegunean

Olinpiada bukaerako bazkaria lotzeko; 20:00etan.

HERRI Olinpiadako antolatzailak aurtengo olinpiadak saribanaketa-bazkaria eginez errematatzea erabaki zuten. Zer egin eta nola antolatu

aztertzeko, parte hartzaileentzat bilera konbokatuta dute gaur arratsalderako. Oraingoz, bazkarirako eguna dago jarria: urriak 28, larunbata. □

### JUBILATU ETXEA

## Arazo urologikoei buruzko hitzaldia asteazkenean

Arratsaldeko seietan hasiko da Jubilatut Etxean.

JUBILATU Etxean gerru arazo-  
ei (urologikoak) buruzko hitzaldia izango da asteazken honetan. *Pixa ezin eutsia, prostatak arazoak, infekzioak* eta antzeko gaiak azalduko dituzte. □

### BUSTURIARA

Datorren larunbatean Jubilatutuek Busturiara (Bizkaia) dute eskurtsioa. Zozketa gaur egingo da 17:00etan.

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:



kutxa

zuri esker



## ■ 3 MAILAKO FUTBOL LIGA

# Hernanik txukun jokatu eta 3-1 irabazi zion Arenasi

Egoitzek (2) eta Insaustik (1) sartu zituzten hernaniarren golak.



Egoitzen gola eta Arenasko atezainaren alfer estirada.

HERNANIK eman dio buelta hasierako pattalaldiari eta 6 puntu lortu ditu azken bi partiduetan. Atzo arratsaldean joko polita eta segurua egin zuten Zubipen. Zelaia, blai egin, baina, jokatzeko inongo arazorik gabea zegoen.

**PARTIDU BORROKATUA**  
Bi taldeek jokatu zuten parti-

du gogorra. Azkenean, bizkaitarrek 10 jokalarirekin bukatu zuten partidua, jokalariek batek Euskori aurpegian sekulako ukalondokoa eman ziolako.

**GOLAK**  
Gol politik sartu zituzten txuriberdeek. 1-0koa Ikerrek eskubiz zentratu eta Insaustik barrura. 2-0koa, berri,

Hernani	Arenas
3	1
<b>ALINEAZIOA</b>	
<b>HERNANI:</b> Edu, Egoitz, Eusko, Plaza, Eneko, Beñat, Aitor, Barandiaran, Insausti, Iker, Duran. Ordezkoak: Otxoa (75m), Arkaitz, Igor, Aldalur (85m)	
<b>ARENAS:</b> Fede, Iker, Merino, Fernan, San Pedro, Fraile, Marañon, Iñigo, Butron, Asier Puente, De La Sota. Ordezkoak: Roberto, Txelu, Granero, Mendizabal.	
<b>EPAILEA:</b> JON EGILEOR	
<b>IKUSLEAK:</b> 350-400, azkenerako. Bizkaitatik ere asko etorri ziren.	
<b>GOLAK:</b> 1-0 Insaustik, (30 m); 2-0 Egoitzek (35 m); 2-1 Frailek (37 m); 3-1 Egoitzek (55 m).	

Ikerrek areara ezker hegaletik eta Egoitzek gola. 2-1koa Frailek sartu zuen Hernaniko area barrutik, faltaz. Azkenik, 3-1koa, ezkerretik zentroa, Duranek, buruz justu altxa atzelariak, ez harrapatzeko adina, eta Egoitzek sarera.

10 puntu ditu orain Hernanik. Datorren astean ondarrutarren kontra. □

## DOBERA EUSKARA ELKARTEA Nafarroa Oinezera joateko txartelak salgai daude

DATORREN igandean Zizur Txikira joateko txartelak jarri ditu salgai Dobera Euskara Elkarteak. Aurtengo festa San Fermin ikastolaren aldekoa izango da. Txartelak Zintzarrin, Txilin eta Dobera elkarteetan daude salgai: Bazkide ez direnentzat 1.300 pezetetan eta bazkideentzat 1.000 pezetetan (Doberako lokalean). □

## Aseguratuen bulegoa Hernanin

OFA, *aseguru konpainien* aurrean jendea babesteko elkarteak Hernanin ireki du bulegoa, Latxunbe Berri 11. Gaur prentsaurrekoa dute 11:00etan Londres Hotelean bulegoa ofizialki aurkezteko. Prentsa ohar batean diotenez "aseguru konpainien aurrean, biztanle gehienak defentsarik gabe daude, konpainiak polizetako letra txikia eta beraien arteko paktuetan babesten baitira". Honi aurre egiteko sortu da OFA. □

## ■ IGERIKETA

### Igerilarien gurasoek bilera dute gaur Biterin

IGERIKETA pretenporada martxan da, eta entrenamenduak ere bai kiroldegian. Aurten, 100 igerilari inguruk eman du izena, haur eta gazte. Arduradunek gurasoekin dute bilera lehengo urteko balantzea egin eta datorren denboraldiko informazioa emateko. Bilera arratsaldeko zazpitan izango da Biteri kultur etxean, gaur astelehena. □

## LEHIAKETA

BA AL DAKIZU NON DAGOEN?



**KRONIKAK** proban jarriko zaitu. Ea Hernani zenbat eza gutzen duzun benetan! Guk, astelehenero, herriko leku edo gauza baten argazkia aterako dugu eta zuk zein tokitan dagoen asmatu.

■ **Erantzunak:** *Kronikako* buzoian utzi: Larramendi 11, behea. Izen-abizenak eta telefonoa jarri.

■ **Epea:** astebete.

■ **Aurreko astekoa:** Agustin Kardaberazaren kuadroa. Agustinatako konbentuan.

■ **Asmatu dutenak:** Joxe M<sup>a</sup> Zelarain, *Putre*, Maddi Iradi, Leire Larrañaga, Asier Larrañaga, Denis Sorondo. (Saria gehien asmatzen dituenak eramango du).

# Eguneko zentroa asteburuetan ere zabalik da

Pasa den asteburuan zabaldu dute zerbitzua.

EGUNEKO zentrua Sandiusterriko eraikinaren alderdi batean dago, lehenengo solairuan. Eguna bertan pasata afaltzera eta lotara etxera joaten direnak hartzen dituzte.

Orain arte zerbitzua astelehenetik ostiralera artekoa zen, baina, asteburu honetan

hasi dira larunbat eta igandeen ere jendea hartzen. Asteazkenean zehar 16 bat eta asteburuetan 12 dira zerbitzu hau erabiltzen duten edadetuak. Gosaldu, bazkaldu, telebista ikusi, egunkaria irakurri, mezetara joan, gimnasia egin... denetik egiten dute. □

## ZERBITZUAK

### ☎ TELEFONOAK

► Taxiak: 943 550093  
► Udaltzaingoa: 943 333288  
► DYA: 943 464622  
► Autobusak: 943 556662  
► Anbulatorioa: 943 557750

### ✚ ASTEARTEA

► Egunez: Correa Antziola, 44 ☎ 943 336022  
► Gaez: Correa Antziola, 44 ☎ 943 336022

### ✚ FARMAZIAK

► Egunez: Chucla Kardaberaz, 48 ☎ 943 551793  
► Gaez: Chucla Kardaberaz, 48 ☎ 943 551793

### ✚ ASTEAZKENA

► Egunez: Aizpuru Latxunbe Berri, 11 ☎ 943 553582  
► Gaez: Aizpuru Latxunbe Berri, 11 ☎ 943 553582

## PARTIDUETAKO EMAITZAK

### ■ FUTBOLA

·3.maila:  
**Hernani 3 - Arenas 1**  
· *Gorengo Maila:*  
Intxaurren 2 - **Hernani 0**  
· *Emakumezkoen Liga:*  
Antoniano 2 - **Hernani 3**  
· *Gazteen Liga Nazionala:*  
Antiguoko 2 - **Hernani 2**  
· *Gazteen Ohorezko Liga:*  
**Hernani 0** - Elgoibar 1  
· *Gazteen Bigarren Maila:*  
**Hernani 5** - Danena 0  
· *Kadeteen Ohorezko Maila:*  
**Hernani 1** - Ondarroako Aurrera 0  
· *Kadeteen 2. Maila:*

Beasain 5 - **Hernani 0**  
· *Haurren Ohorezko Maila:*  
Real Sociedad 8 - **Hernani 0**

### ■ PELOTA

· *Profesionalen 4 1/2ko txapelketa:*  
Esnal 22 - Oar Arteta 16

### GIPIZKOAKO LIGA

· *Paleta Goma neskek:*  
Burutaran - Lujanbio 30  
Usandizaga-Salaberria 18.  
· *Paleta Goma neskek:*  
**Hoz - Bermejo 13;** San Esteban 30  
· *Eskuz binaka kadeteak*  
Arrieta - Otegi 22  
Kurpil Kirolak 2

· *Eskuz binaka kadeteak*  
Irazustabarrena - Altuna 22  
Behar zana 0

· *Eskuz binaka jubenilak:*  
Alvarez-San Sebastian 22  
Behar Zana 6  
· *Pala Motza Nagusiak*  
Ubarretxena - Galarza 40  
Beloki 34

### ■ BOLEIBOLA

· *Euskadiko liga:*  
Durango 0 - **UPV Hernani 3**  
· *Jubenilak:*  
**Hernani 3** - Universidad Navarra 0

Laguntzaile:



**GIPIZKOAKO FORU ALDUNDIA**  
Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Departamentuak